


# ORMAIZTEGIko

## IRISGARRITASUN UNIBERSALEKOPLAN

### INTEGRALA

2024



## 5. LIBURUKIA

### ESPARRUA: KOMUNIKAZIOA ETA SEINALETIKA



ORMAIZTEGIKO UDALA

Egileak:



Javier Regalado Herrero  
Itziar RodríguezOyarbide



LURRALDE PLANGINTZA,  
ETXEBIZTZA  
ETA GARRAIO SAILA  
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN  
TERRITORIAL, VIVIENDA  
Y TRANSPORTES





# ORMAIZTEGIKO IRISGARRITASUN UNIBERTSALEKO PLAN INTEGRALA

## PLANAREN AURKIBIDE OROKORRA

<b>1.- ALDERDI OROKORRAK ETA ARAUDIA.....</b>	<b>1. LIBURUKIA</b>
<b>2.- ESPARRUA: BIDE PUBLIKOA.....</b>	<b>2. LIBURUKIA</b>
<b>3.- ESPARRUA: UDAL ERAIKINAK.....</b>	<b>3. LIBURUKIA</b>
<b>4.- ESPARRUA: GARRAIOA.....</b>	<b>4. LIBURUKIA</b>
<b>5.- ESPARRUA: KOMUNIKAZIOA ETA SEINALETIKA..</b>	<b>5. LIBURUKIA</b>
<b>6.- PLANAREN SINTESIA.....</b>	<b>6. LIBURUKIA</b>
<b>7.- KUDEAKETA ETA KOMUNIKAZIO PLANA.....</b>	<b>7. LIBURUKIA</b>



## **5.- KOMUNIKAZIO ETA SEINALETIKA IRISGARRIA**

### **LIBURUKIAREN AURKIBIDEA**

#### **1.- AURKEZPENA**

#### **ANALISIA ETA KOMUNIKAZIO/ SEINALETIKA PROPOSAMENAK**

- 2.1.- Bide Publikoa
- 2.2.- Udal Eraikinak
- 2.3.- Garraioa
- 2.4.- Komunikazio / Seinaletikaren Gauzatze Materialaren Aurrekontua

#### **3.- UDAL WEB GUNEAREN AZTERKETA**

- 3.1.- Sarrera. Arau-esparrua
- 3.2.- Web-irisgarritasuna
- 3.3.- Udal web-orria
  - 3.3.1.- Analisia
  - 3.3.2.- Azterketaren ondorioak
- 3.4.- Aurrekontua
- 3.5.- Lehentasunak

#### **I ERANSKINA: WEB ORRIAREN ANALISIAREN TXOSTENAK.**



## 1.- AURKEZPENA

Komunikazioa pertsonen harremanetan jartzeko, informazioa trukatzeko eta lurraldean askatasunez mugitzeko duten gaitasuna definitzen duen terminoa da. Komunikaziorako eskubidea pertsonen oinarritzko eskubideetako bat da, eta, horregatik, ahaleginak egin eta zaindu behar dira guztiek, bakoitzaren gaitasun fisiko, mental edo kognitiboak alde batera utzita, askatasunez eta autonomiaz goza dezaten.

Azken urteotan etengabe lan egin da erabiltzaile batzuen eta ingurunearen arteko elkarreragina mugatzen duten oztopoak ezabatzeko, eta ingurune hori ez da guztientzat pentsatu. Eta oztopo arkitektonikoak ezabatzeko sortu ohi den etengabeko lan horrek ezin du ahaztu informazio- eta komunikazio-sistemei eragiten dieten beste muga batzuk daudela, eta horiek ere konpondu egin behar direla.

Honako dokumentuaren helburua seinaleztapen- eta komunikazio-sistemek bete behar dituzten ezaugarri nagusiak ezartzea da, guztiek erabil ditzaten, bakoitzaren gaitasun fisiko, mental edo kognitiboak edozein direla ere.

Beraz, Udalari beharrezkoak diren irizpideak eta gomendioak ematean datza, egungo komunikazio eta seinaleztapen sistemak hobetzeko edo sortu ahal izateko, erabiltzaile guztiei informazioari eta komunikazioari eskubidea bermatu dezaten.

Komunikazioan askotariko alderdiak sartzan dira, hala nola, batetik, erabiltzaileen mugikortasuna ahalbidetzen duten komunikazio-bide fisikoak, eta, bestetik, erabiltzaileek mugitzeko eta udalerrak eskaintzen dizkion zerbitzuak erabiltzeko behar duten informazio-transmisioaren kudeaketa guztia.

Irisingarritasun Plana egiterako momentuan komunikazioa **zeharkako gai** gisa aintzat hartu da, hala, **jada aztertutako eremu bakoitzean azaltzen da (Bide Publikoa, Eraikinak eta Garraioa)**, eta irisingarritasunaren ikuspegi orokor batetik, aztertutako elementu oro eta bakoitzean kontuan izatea garrantzitsua da.

Horrek esan nahi du jarduketa-proposamenak eta esku-hartze bakoitzaren balorazioa garatutako gainerako eremuekin batera egin behar direla.

Horrela, bide publikoan, eraikinetan edo garraio elementutan egin behar diren eskuhartzeen arabera, komunikazio irisgarriaren ekimena dagokion aipatutako eremu bakoitzaren barnean garatzen da: Bide Publikoa, Eraikin Publikoak eta Garraioa.

Liburuki honetan, Irisgarritasun Planaren eremu ezberdinen analisisian (bide publikoa, eraikinak eta garraioa), komunikazio eta seinaleztapen irisgarriaren inguruan aurkitutako alderdi aipagarrienak azpimarratzen dira zehazki.

- ☞ **Bide Publikoa:** ibilbideetan erabiltzaileen mugikortasuna errazteko alderdi orokorrak jasotzen dira, seinaleztapenean eta horren diseinuan funtsezkoak diren gaien inguruan.
- ☞ **Eraikinak:** erabilera publikoa duten eraikin interesgarrien analisia egiten da, sarbidea, jendearen arreta eta informazioa transmisioari buruz.
- ☞ **Garraioa:** geltokien eta erreserbatutako aparkalekuen seinaleztapen ezaugarriak aztertzen dira, eta baita erabiltzaileei eskaintzen den informazioaren kalitatea eta kantitatea ere.

Orain arte aipatutako irisgarritasun-irizpideak ondorioz komunikazioan, Liburuki honetan komunikazio eta seinaletika irisgarriaren proposamenen laburpenak azaltzen dira, eremu bakoitzari dagokionez: Bide Publikoan (2. Liburukia), Eraikin Publikoetan (3. Liburukia) eta Garraioan (4. Liburukia).

**Behin eta berriz esan behar dugu liburuki honetan azaltzen diren proposamenak dagokion aurreko liburukietan jada jaso direla, eta irisgarritasunari buruzko edozein jarduketa beti integrala izan behar dela, komunikazio eta seinaletika kontuan izanik. Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integral batek bete behar dituen lege-baldintza betetzeaz gain, honako liburukiak, pertsona ororen komunikazio-irisgarriaren arazoaren tamainari erantzuna ematen dio.**





## 2.- ANALISIA ETA KOMUNIKAZIO /SEINALETIKA PROPOSAMENAK

Atal honetan komunikazio eta seinaleetika sistemen azterketa azaltzen da, eta ondorioz egiten diren proposamenak, Irisgarritasun Planeko eraikinen, bide publikoaren eta garraioaren eremuetan. Ondoren, alderdi hauek guztiak zehazten dira, aipatutako eremuetan jada aztertuak izan direnak, eta baita dagokien egokitzapen proposamenak ere.

Azterlana egiterakoan, komunikazioa zeharkako alderdia dela ulertu dugu, beraz, eremu bakoitzean azaltzen da eta irisgarritasunaren ikuspuntu orokor batetik garrantzitsua da aztertzen diren elementu guztietan kontuan izatea.

### 2.1. Bide Publikoa

Bide Publikoaren analisisian komunikazioari dagokien alderdi zehatzak jasotzen dira eta ondorioztatzen diren proposamenak egiten dira ere. Komunikazio irisgarriari buruzko proposamen zehatzez gain, badaude beste proposamenak komunikazioaren parte bat hartzen dutenak, hala nola:

- ✚ Oinezkoen ibia eraikitzea edo berreraikitzea. (kontrastedun zoladura eta zoladura-zerrenda norabideduna jartzea barne hartzen du)
- ✚ Arrapalaren eraikitzea edo berreraikitzea, arrapala adierazteko zoladura-zerrenda norabideduna barne.
- ✚ Eskaileren berreraikitzea, zoladura-zerrenda zurruna eskaileretan eta eskailera adierazteko zoladura-zerrenda norabideduna jartzea barne.

Orokorrean, bide publikoan aurki ditzakegun komunikazio/seinaleetika irisgarriari buruzko jarduketa zehatzak hauek dira:

- **Semaforoaren egokitzapena:**

Oinezkoen igarotzea kontrolatzen duen semaforoan gailu bat instalatzen da, eta seinale akustiko bat igortzen du semaforoa berdea dagoen bitartean. Gailu honen bertsio modernoena semaforoan seinale-hargailu bat instalatzean datza, horrek soilik soinua igortzen du urrutiko aginte batetik seinaleak jasotzen dituenean. Urrutiko aginte



hau, pixkanaka, ikusmen-urritasuna duten pertsonen artean banatzen ari da, eta, honetaz gain, beste erabilerak izan ditzake.

- **Eskailera eta arrapala adierazteko zoladura-zerrenda norabideduna jartzea (hornidura barne).**

Zoladuraren aldaketa da eta inguruko zoladura orokorraren testura ezberdina duen zerrenda bat da. Bastoi- gida erabiltzaileei sestra aldaketak adierazteko erabiltzen da, esaterako, eskailera eta arrapalak. Eskailera eta arrapalen hasieran edo bukaeran 120 cm-ko zoladura – zerrenda norabideduna jarri beharko da, ibilbidearen zentzuarekiko perpendikularra, eta luzetarako tarteekin, eskailera edo arrapalaren zabalera guztia hartuz. Zoladura- zerrenda honek kontraste kromatikoa izango du inguruko gainerako zoladurarekiko.

- **Eskaileretan zoladura-zerrenda zurrinak jartzea**

Eskailera- mailen ertzeko erpina adierazteko erabiltzen da eta zerrenda zurrina eta kromatikoki kontrasteduna jartzen da. Bi funtzio ditu: batetik, eskailera maila bakoitzaren mailagaina eta mailartearen kokapena erraz eta bizkor detektatzea, eta bestetik, maila isolatuen erpinetan dauden irtenguneak seinalezatzea. Irristakaitzak diren zerrenda txikiak (5cm eta 10cm arteko zabalera dute) erabiltzen dira (luzeran eta mailagainean jarriak), eta inguruko zoladurarekiko testura eta kolore kontrastatua dute.

- **Oinezkoen ibia adierazteko zoladura-zerrenda jartzea (hornidura barne). Arriskua adierazteko zoladura-zerrenda ere barne dago.**

Zoladuraren aldaketa da. Alde batetik, zoladura orokorrarekiko 0,60m-ko testura eta kolore ezberdina duen zerrenda izanik, botoidun zoladura da eta espaloitik doan oinezkoaren norabidearekiko zeharka jartzen da, ibia eta espaloia elkartzen diren tartean. Beste aldetik, 0,80m –ko zabalera duen beste zoladura – zerrenda jartzen da, norabideduna, eta eraikinen fatxada lerrokaduraren eta oinezkoen ibiaren hasiera artean doa. Bigarren zerrenda hau espaloitik pasako den oinezkoen norabidearekiko zeharka jartzen da eta galtzadaren beste aldeko zoladura-zerrenda norabidedunarekin lerrokatua egongo da.

- **Arriskua adierazteko zoladura-zerrenda jartzea (hornidura barne).**

Batzuetan elementuak eta hiri-altzariak daude irisgarritasun irizpideak jarraitzen ez dituztenak, eta kontuan izanik hauen diseinua ezin dela aldatua eta ezin direla ordezkatu, era egokitan seinalezatatu beharko dira.





Kasu hauetan guztietan, elementu horiek seinaleztatzea eta babestea proposatzen da, eta, hala, pertsonak askok elementu horiek hautematean izan dezaketen arazoak ezabatzea. Besteak beste, diseinu-arazo hauek izan daitezke:

- 2,20m baina altuera txikiagoa duten elementu irtenak, bastoi -gida erabiltzen dutenentzat detekta ezinak izan daiteke, eta ume eta pertsona baxuentzat arazoak sortzen dute.
- Ertz bizi edo zorrotzak ere dituzten elementuak, edozeinentzat arriskutsuak dira.
- Txikia eta inguruarekin kromatikoki kontrasterik ez duen elementua, estropezu edo talka arriskua du ikusmen- urria edo despistatuak diren pertsonentzat.

ORMAIZTEGIko bide publikoaren honako analisisian komunikazio /seinaletika jarduketa ohikoenak hauek dira: eskaileretan zerrenda zurrinak jartzea eta zoladura-zerrenda norabideduna jartzea, pasabideetan zoladura seinaleztatzailea jartzea eta seinale bertikalak jartzea.

<b>Esku-hartzea</b>	<b>Zbk</b>
Arrapala adierazteko zoladura-zerrenda norabideduna jartzea (hornidura barne).	11 m <sup>2</sup>
Arriskua adierazteko zoladura-zerrenda jartzea (hornidura barne).	153 m <sup>2</sup> .
Eskailera mailetan zerrenda zurrinak jartzea.	220 m
Eskaileretan zoladura- zerrenda norabideduna jartzea (hornidura barne)	72 m <sup>2</sup> .
Oinezkoen ibia adierazteko zoladura-zerrenda jartzea (hornidura barne)	225 m <sup>2</sup> .
Oinezkoen ibia ohartarazteko zoladura –zerrenda jartzea (hornidura barne).	64 m <sup>2</sup>
Oinezkoen pasabidea adierazteko seinale bertikala jartzea (hornidura barne).	49 u
Semaforoaren akustika egokitzea	4 u
Zebra- bidea margotzea.	91 m <sup>2</sup>
Plataforma bakarra adierazteko seinale bertikala jartzea (hornidura barne).	2 ud

Datu horiek aztertuta, ondorioztatzen da ia eskailera guztiek ez dituztela seinaleztapen-elementu egokiak, hala nola zerrenda zurrinak eta zoladura-zerrenda norabidedunak. Gainera, seinaleztatzeke zerrenda egon beharko lukeen leku gehienetan, ez dago halakorik, eta oinezkoentzako pasabide gehienetan gauza bera gertatzen da pasabidea adierazteko zoladurarekin.

Egia esan, ORMAIZTEGIko ibiak adierazteko jarritako zoladuren egokitzapena ez dago horren gaizki. Izan ere, existitzen dira, eta horietako batzuk 2010eko otsailera arte eskusiboki indarrean zegoen euskal araudiaren arabera ere egokiak izango lirateke. Baina VIV/561/2010 Agindua indargabetutako VIV/561/2010 Agindua onartu ondoren, Estatuak gutxieneko irizpideak aldatu egin ditu ildo horretako, eta aldatu egin du pasabideak adierazteko zoladura moten forma. Ondorioz, aurreko araudiaren arabera (araudi autonomikoa) egindako zoladurak orain ez dira zuzenak. Nolanahi ere, horien gaineko jarduketa haztatu beharko da, Aginduan bertan ezarritako gabealdiagatik eta esku-hartze horien lehentasunik ezagatik; izan ere, euskal araudiaren arabera arrisku-zoladuraren irisgarritasuna kontuan hartuta zegoen.

ORMAIZTEGIko Bide Publikoan egindako azterketan, komunikazioko esku-hartze eskusiboen kapitulua gauzatze materialaren aurrekontuaren % 3,78 da, hau da, **60.597,00 €**. Partida hau honela banatzen da:

<b>Esku-hartzea</b>	<b>Zbk</b>
Arrapala adierazteko zoladura-zerrenda norabideduna jartzea (hornidura barne).	638,00 €
Arriskua adierazteko zoladura-zerrenda jartzea (hornidura barne).	8.874,00 €
Eskailera mailetan zerrenda zurrinak jartzea.	16.280,00 €
Eskaileretan zoladura- zerrenda norabideduna jartzea (hornidura barne)	4.176,00 €
Oinezkoen ibia adierazteko zoladura-zerrenda jartzea (hornidura barne)	13.050,00 €
Oinezkoen ibia ohartarazteko zoladura –zerrenda jartzea (hornidura barne).	3.944,00 €
Oinezkoen pasabidea adierazteko seinale bertikala jartzea (hornidura barne).	7.791,00 €
Semaforoaren akustika egokitzea	3.236,00 €
Zebra- bidea margotzea.	2.184,00 €
Plataforma bakarra adierazteko seinale bertikala jartzea (hornidura barne).	424,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>60.597,00 €.</b>



## 2.2. Udal Eraikinak

Eraikinetan egindako analisisian komunikazioa eta seinaleztapenari buruzko atal berezi bat dago. Atal honetan, eraikinen azterketan proposatu daitezkeen irisgarritasuna komunikazioari eta seinaleztapenari dagokien esku-hartze zehatzak jasotzen dira.

Beste azterketa eremuetan gertatzen den bezala, aipatu behar da, jarraian aztertuko ditugun komunikazio irisgarriari buruzko esku-hartze zehatzez gain, badaude beste proposamenak komunikazioaren parte direnak ere, eta ondoren azaltzen ditugu:

- ✦ Ilogailuaren kabina egokitzea (behar diren komunikazio elementu guztiak barne)
- ✦ Ilogailua jartzea edo ordezkatzeta (behar diren komunikazio elementu guztiak barne).
- ✦ Arrapala eraikitzea edo berreraikitzea, zoladura- zerrenda norabideduna barne.
- ✦ Eskailera berreraikitzea, mailetako zerrenda zurruna eta zoladura- zerrenda norabideduna jartzea barne.
- ✦ Besaulki-patioan gurgil-aulkien erabiltzaileentzako erreserbatutako plaza bat sortzea (erreserbaren seinaletika barne).
- ✦ Ate irristagarri automatikoa jartzea, irristailua, segurtasuneko beiraduna.
- ✦ Dagoen erreserbatutako komuna egokitzea, elementu osagarriak jarriz (alarma eta kontraste kromatikoa barne).
- ✦ Komun edo aldagela egokitutakoa jartzea (seinaletika, alarma eta kontraste kromatikoa barne)

Orokorrean, eraikinen azterketa egiteko momentuan komunikazio irisgarritasunari buruzko jarduketara zehatzak honako hauek dira:

- **Argiztapen sistemen ordezkapena:**  
Argiztapen maila baxuegiak detektatzen den espazioetan, hala, ikusmen- arazoak dituzten pertsonen pertzepzio, kokapen eta orientazio baldintzak hobetuko litzateke.
- **Argidun zutoinak**  
Zutoin txiki edo farolak dira eraikinaren sarbidea argiztatzeko, eta argi naturala urria den momentuetan egoki orientatzeko balio dute.
- **Pareta margotzea (m<sup>2</sup>), konponketak eta kantoï kontrastedunak barne**  
Paretak zoru eta sabaiekin kontraste kromatikorik ez duten gunetan proposatzen da jarduketa hau.

- **Atea margotzea**  
Jarduketa hau inguruko paretekin nahiko kontraste kromatikorik ez duten ateetan proposatzen da.
- **Paretetan kantoi kontraste kromatikodunak jartzea.**  
Ikusmen- arazoak dituzten pertsoneri ertz arriskutsuak adierazteko
- **Dagoen etengailua ordezkatzeta eta egokitutakoa jartzea, paretarekin kontraste kromatikoa izanik.**  
Inguruko paretarekin kontraste kromatikorik ez duten espazioetan, aurkitzea eta erabiltzea zailduz.
- **Etengailu unitatea tokiz aldatzea**  
Ikusmen edo manipulazio arazoak dituzten pertsonen aise aurki eta erabili ditzaten.
- **Bideo-sistemadun atezain automatikoa jartzea**  
Sistema honek pertsona entzungorrei komunikazioa errazten die, eraikinean dauden zerbitzuei aukera emanez.
- **Sarbideko plataforman solairu- adierazpena jartzea solairu bakoitzean.**  
Izogailua erabili ahal izateko, solairu ezberdinen ateak seinaleztapena beharko dute, erliebe altuan eta Braille sisteman.
- **Kabinaren barruan bideo-sistemadun atezain automatikoa jartzea**  
Pertsona gorra eta itsuak emergentzia zerbitzuarekin komunikatu ahal izateko beharrezkoa da interfonoa egokitua izatea.
- **Kabinaren barruan soinu bidezko seinalea jartzea**  
Izogailuaren barruan, geldialdi bakoitzeko, ikus- informazio osatzen da soinu bidezko seinalearen bitartez, ikusmen- arazoak dituzten pertsonentzat.
- **Kabinaren barruan soinu eta argi bidezko seinalea jartzea**  
Izogailuaren barruan, geldialdi abisua emateko informazio akustikoa eta argiduna jartzea ikusmen- arazoak dituztenentzateko/ eta gorra diren pertsonentzat.
- **Sarbideko plataforman soinu eta argi bidezko seinalea solairu bakoitzean jartzea.**  
Izogailuaren kanpoan, geldialdi abisua emateko, informazio argiduna eta akustikoa jartzea solairu bakoitzeko sarbide plataforman, ikusmen- arazoak dituztenentzateko/ eta gorra diren pertsonen igogailua iristear dagoela jakiteko.
- **Ikusizko abisu-sistema duen tinbre bat jartzea barruan(hornidura barne).**



Entzungorrek diren pertsoneri larrialdi, emergentzia edo beste edozein abisua emateko erabiltzen da.

- **Egokitutako komunean alarma edo soinu bidezko abisua jartzea,**  
Komuna erabiliko edozein pertsonak, arazoren bat izanez gero, ezohikoa den zerbait gertatzen ari denaren abisua eman dezake.
- **Egokitutako telefonoa jartzea komunikazioan arazoak dituzten pertsonentzat.**  
Telefono publikoak dauden tokian, entzumen eta ikusmen- arazoak dituzten pertsonentzat egokitutako telefono bat jarri behar da (tekla handiak, begizta, bolumen modulagarria ...)
- **Kristalezko itxitura duen mostradoreetan edo mostradore irekietan begizta magnetikoa jartzea, megafonia sistemaduna, azalera handia duten guneeetan.**  
Audiofonoak erabiltzen dituzten pertsonen entzumena hobetzeko jartzen diren laguntza teknikoak dira.

Eraikien azterketa egiteko momentuan, seinaleztapenari buruzko esku-hartze zehatzak hauek dira orokorrean:

- **Erreserbatutako aparkaleku plaza margotzea, dagokion seinaleztapen horizontala eta bertikala barne.**  
Jarduketa hauekin erreserbatutako plazek behar duten seinaletika edukitzea bermatzen da, bai erabiltzaileentzat zein gainerako pertsonentzat.
- **Harmailetan eta besaulki-patioetan erreserbatutako plazak seinaleztatzea.**  
Jarduketa hauekin erreserbatutako plazek behar duten seinaletika edukitzea bermatzen da, bai erabiltzaileentzat zein gainerako pertsonentzat.
- **Beira gainean jarritako banda adierazkorra**  
Ikusmen- arazoak dituzten pertsonak aise lokalizatu eta erabili ahal izateko, ezbeharrak saihestuz.
- **Paretan piktograma edo idazkuna jartzea**  
Kromatikoki kontrastedun kartela jartzea, goi-erliebean eta Braillean, beharrezko informazioa emateko, hala nola, aretoaren erabilera, igogailuaren kokapena, gezi bat, e.a.
- **Paretan direktorio orokorra jartzea,**  
Direktorioa edo kromatikoki kontrastatutako plano jartzea, goi-erliebean eta Braillean, eraikin konplexuetan sarrera-gunean, non azaltzen den eraikinaren antolaketa

orokorra, banaketa, solairuka, zonaka, e.a.

- **Zinta-gida seinalatzailea margo testurizatuarekin.**

Inguruko zoladurarekiko testura eta kolore ezberdinak dituen zoladura jartzean datza, makulu-gida erabiltzaileei edo ikusmen-arazoak dituzten pertsoneni eraikinaren gune nagusiengan gidatzeko. Baita eskailerak, arrapalak, igogailuak eta abarren kokapena adierazteko ere erabiltzen da.

- **Testuradun zerrenda zurrinak jartzea**

Zerrenda adierazleak eta ez labaingarriak dira eta eskaileretako mailagain bakoitzaren luzeran jartzen dira, eta inguruko zoladurarekiko testura eta kolore kontrastatuak dituzte. Ikusmen- desgaitasuna duten pertsonen orientatzen laguntzeko eta irristatzea saihesteko jartzen dira. Testura izateaz gain, kolore deigarria eta kontrastatua dute inguruko zoladurarekiko.

- **Orientazio – plakak eskudeletan**

Goi-erliebean zein Braillean idazketa (marran ardaztua) duten plakak dira, eta eskailera eta arrapalen hasieran eta bukaeran kokatzen dira, zehazki esku-bandaren alboko barne-ertzean. Plakak adierazi beharko dute zein solairu edo gunean dagoen erabiltzailea.

- **Esku - planoak**

Alde batean inprimatutako gramaje altuko paperezko planoak dira, non Braille eta goi-erliebea testuarekin eta irudiekin konbinatzen dituen, ikusmen- desgaitasuna duten pertsonen autonomia errazteko. Mugikortasuna, malgutasuna eta tamaina txikia dira abantailak.

- **Plano handia jartzea, atril gainean**

Plano hauetan testua eta diseinuak goi-erliebean egin dira, ukimen- irakurketaren bitartez, inguruan orientazioa bermatzeko. Horretarako, planoak jaso behar ditu espazioak, ibilbideak eta gehien erabiltzen diren eta interes handiena duten aretoak.

ORMAIZTEGIn aztertutako eraikinetan, komunikazio-esku-hartze ohikoenak honako hauek dira: alarma-instalazioa hainbat eraikinetako komun egokituetan, horien erabiltzaileek, larrialdietan, kanpoaldearekin komunikatu ahal izateko, begizta magnetikoaren instalazioa, eta langileei zeinu-mintzairan oinarritzko prestakuntza ematea.

Ondorengo taulak komunikazio sistemei dagokien esku-hartzeak jasotzen ditu, ORMAIZTEGiko eraikin publikoetan egindako analisitik eratorriak

<b>Komunikaziorako esku-hartzeak</b>
--------------------------------------

<b>Ale.</b>
-------------





Barruan ikusmen-abisuko sistema duen tinbre bat hornitu eta jartzea	1
Beiraz itxitako erakusmahaietan begizta magnetikoa jartzea	1
Egokitutako komunean alarma edo soinu bidezko abisua jartzea	6
Langileen prestakuntza zeinu-mintzairan, oinarrizko maila	1
Megafonia saredun espazio handietan begizta magnetikoa jartzea	1

ORMAIZTEGIko eraikinetan egindako azterketan, eraikinetako komunikazio atalak, gauzatze materialaren aurrekontuko %3,03a hartzen du, hau da, **6.551,60 €**. Partida hau horrela banatzen da:

<b><u>Komunikaziorako esku-hartzeak</u></b>	<b><u>Aurrekontua</u></b>
Barruan ikusmen-abisuko sistema duen tinbre bat hornitu eta jartzea	134,20 €
Beiraz itxitako erakusmahaietan begizta magnetikoa jartzea	1.320,00 €
Egokitutako komunean alarma edo soinu bidezko abisua jartzea	699,00 €
Langileen prestakuntza zeinu-mintzairan, oinarrizko maila	660,00 €
Megafonia saredun espazio handietan begizta magnetikoa jartzea	3.850,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.663,80 €</b>

Seinaletikari dagokionez, ORMAIZTEGIIn aztertutako eraikinetan esku-hartze ohikoenak hauek dira: mailetan zerrenda zurrinak jartzea, zerrenda norabidedunak jartzea, eta piktogramak, errotuluak eta planoak jartzea.

<b><u>Seinaletikarako esku-hartzeak</u></b>	<b><u>Zk</u></b>
Beira gainean banda adierazkorra jartzea	12 m.
Eraikina kanpotik identifikatzeko 1000x600mm-ko errotulua.	3 u.
Lokala kanpotik identifikatzeko errotulu txikia.	5 u.
Harmailetan eta besaulki-patioetan erreserbatutako plazak seinaleztatzea	10 u.
Paretan direktorioa jartzea	2 u.
Paretan piktograma edo idazkuna jartzea	70 u.
Testuradun zerrenda seinalatzailerak jartzea (hornidura barne)	34 m <sup>2</sup> .
Zinta-gida seinalatzailerak margo testurizatuarekin	30,5 m.

Datu hauen analisiaren ondorio gisa, esan dezakegu ez dagoela eraikin egokiturik, bereziki seinaletika eremuan. Karaktere handiak eta kontrastatuak dituen informazio – kartelak dituen eraikin bat aurkitzea oso zaila da, are eta gutxiago Braillez. Gainera, adierazi behar da eskailera guztiek ez dutela seinaleztapen-elementu egokirik.

Udal eraikienetan, seinaletikari dagokion aurrekontua **22.249,15 €**-ko inbertsioa izango da, eraikinetako G.M.A totaleko %6,20 izanik. Partida hau horrela banatzen da:

<b><u>Seinaletikarako esku-hartzeak</u></b>	<b><u>Aurrekontua</u></b>
Beira gainean banda adierazkorra jartzea	264,00 €
Eraikina kanpotik identifikatzeko 1000x600mm-ko errotulua.	2.898,80 €
Lokala kanpotik identifikatzeko errotulu txikia.	3.104,00 €
Harmailetan eta besaulki-patioetan erreserbatutako plazak seinaleztatzea	1.540,00 €
Paretan direktorioa jartzea	5.700,20 €
Paretan piktograma edo idazkuna jartzea	5.005,00 €
Testuradun zerrenda seinalatzailea jartzea (hornidura barne)	2.057,00 €
Zinta-gida seinalatzailea margo testurizatuarekin	1.778,15 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>22.249,15 €</b>



## 2.3. Garraioa

Garraioari dagokionez, komunikazio eta seinaletikari buruzko atal berezi bat ere aurkezten dugu. Atal honetan, autobus geltoki eta erreserbatutako aparkalekuei buruz egin den azterketan, komunikazio irisgarriari dagokion jarduketa zehatzak jasotzen dira.

Honako aztertze- laneko beste atal batzuetan gertatzen den bezala, aipatu behar dugu, ondoren aztertzen ditugun komunikazio irisgarriari dagokien jarduketa zehatzez gain, komunikazioa barne hartzen duten beste proposamen batzuk ere daudela; adibidez, egokitutako markesina jartzea (hornidura barne), non behar diren komunikazio eta seinaletika elementu guztiak barne dauden.

Komunikaziorako irisgarritasunari eta seinaletikari dagokienez, honako esku-hartze espezifiko hauek aurki ditzakegu autobus-geltokiak eta aparkaleku erreserbatuak aztertzerakoan:

- **Markesinan egokitutako informazio eta seinaleztapena jartzea.**

Irisgarriak diren autobus-lineetako zutoinetako, markesinetako eta beste interesdun lineekin erlazionaturiko elementuetako informazio guztia (hiri-planoak, gidak, e.a., ...) nazioarteko irisgarritasun ikurra izatea garrantzitsua da, linea-zenbakiarekin batera. Halaber, garraioari dagokion edozein informazio Braillez egon beharko da. Markesinak idazkun irisgarria izango du (karaktere handi eta kontrastatuekin) geltokiaren izenarekin, horrela autobus barrutik ikusi ahal izango da.

- **Beiratan zerrenda seinalatzailleak jartzea.**

Markesinaren azalera gardenetan seinaleztapen kromatikoa jartzen da, talka arriskua saihesteko, beirak ez ikusteagatik.

- **Geltokiko zutoin egokitua jartzea, hornidura barne.**

Autobus geltokia identifikatzeko (nazioarteko autobus piktograma) zutoinak banderatxo bat eraman behar dute letra handi eta kolore kontrastea duen informazioarekin. Aldi berean, autobus zutoinak linearen ibilbideei eta ordutegiei buruzko informazioa eman behar du, letra handiz, kontrastatua eta Braillez, eta 1,00 eta 1,40m tarteko altueran kokatuta egongo da.

- **Zintarrian zerrenda horia margotzea**

Autobus geltokiko nasaren ertza (espaloi-ertza) kromatikoki kontrastatzeko eta, behin autobusa geltokian geratzen denean, autobusak hartzen duen luzera osoa

adierazteko erabiltzen da, ikusmen-arazoak dituzten pertsoneri laguntzeko.

- **Zoladura-zerrenda seinalizatzaile ukigarria jartzea**

Autobus geltokiaren kokapena zoladuran adierazteko jartzen da. Oinezkoen ibilbideari elkartutzat jartzen den zoladura- zerrenda seinalizatzaile ukigarria da geltokiraino iritsiz, artekak ditu eta 80cm ko zabalera du.

- **Soinu bidezko informazio pantailetan**

Ahots-mezuak jartzea da, urrutiko agente sistema erabiliz, pantailan adierazten den informazioa soinuaren bidez eskainiz. Horrela, ikusmen- arazoak dituzten pertsonen informazioa eskuratu dezakete.

- **Nazioarteko irisgarritasun sinbolodun seinale horizontala margotzea (Erreserbatutako aparkalekuak)**

Jarduketa honek erreserbatutako plazen adierazpen zuzena bermatzen du, bai erabiltzaileentzat bai gainerako pertsonentzat.

- **Alboko hurbiltze eta transferentzia gunea margotzea (Erreserbatutako aparkalekuak)**

Jarduketa honek erreserbatutako plazen sarbidearen adierazpen zuzena bermatzen du, bai erabiltzaileentzat bai gainerako pertsonentzat.

- **Nazioarteko irisgarritasun sinbolodun seinale bertikala jartzea (Erreserbatutako aparkalekuak)**

Jarduketa honek erreserbatutako plazen adierazpen zuzena bermatzen du, bai erabiltzaileentzat bai gainerako pertsonentzat.

- **Gainerako ibilgailuek aparkatzea debekatzen duen seinale bertikala jartzea (Erreserbatutako aparkalekuak)**

Jarduketa honek erreserbatutako plazen adierazpen zuzena bermatzen du, bai erabiltzaileentzat bai gainerako pertsonentzat.

ORMAIZTEGiko autobus-geltokien (AG), komunikazioarekin eta seinaleekin lotutako esku-hartzeen ardatza da geltoki zutoin egokituak jartzea (halakorik ez dagoen lekuetan), informazio egokitua jartzea, norabideko seinaleztapen-zerrenda egokia jartzea eta zintarria pintatzea. Eta aztertutako erreserbatutako aparkaleku-plazetan (EA), esku-hartze ohikoena seinaleztapen bertikala jartzea da.

Ez dira kontuan hartzen aparkaleku erreserbatu berriak eraikitzeke beharrezkoak diren lanak, haien komunikazioa eta seinaleak behar bezala egingo direla uste baita.



ORMAIZTEGIko Garraioa atala aztertu ondoren, hauek dira egin behar diren komunikazio eta seinaletikari dagokien esku-hartzeak:

<b><u>Esku-hartzeak</u></b>	<b><u>Zk</u></b>
Gainerako ibilgailuek aparkatzea debekatzen duen seinale bertikala jartzea	2 ud.
Geltokiko zutoin egokitua jartzea, hornidura barne.	1 ud.
Markesinan egokitutako informazioa jartzea	1 ud.
Zintarriaren ondoan zerrenda seinalizatzaile horia jartzea.	12 m.
Zoladura-zerrenda seinalizatzaile ukigarria jartzea, hornidura barne	22 m <sup>2</sup> .
Nazioarteko irisgarritasun sinbolodun seinale bertikala jartzea (EA)	5 ud.

Analisiaren ondorio gisa, esan dezakegu geltokiak ez daudela araudiaren arabera seinaleztatuak, eta seinale bertikalak falta direla plazak seinaleztatze eta erreserba espezifikoak direla ohartarazteko. Komunikazio eta seinaletika kapituluak garraioaren gauzatze materialaren aurrekontu totalaren %36,74a hartzen du, hau da, **3.948,00 €**. Partida hau horrela banatzen da.

<b><u>Esku-hartzeak</u></b>	<b><u>Aurrekontua</u></b>
Geltokiko zutoin egokitua jartzea, hornidura barne.	508,00 €
Markesinan egokitutako informazioa jartzea	355,00 €
Zintarriaren ondoan zerrenda seinalizatzaile horia jartzea.	1.276,00 €
Zoladura-zerrenda seinalizatzaile ukigarria jartzea, hornidura barne	696,00 €
<b>Autobus geltokiak</b>	<b>2.835,00 €</b>
Gainerako ibilgailuek aparkatzea debekatzen duen seinale bertikala jartzea	318,00 €
Nazioarteko irisgarritasun sinbolodun seinale bertikala jartzea (EA)	795,00 €
<b>Erreserbatutako aparkalekuak</b>	<b>1.113,00 €</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>3.948,00 €</b>



## 2.4. Komunikazio/ Seinaletikaren Aurrekontuaren Laburpena

<b>BIDE PUBLIKOKO KOMUNIKAZIOAREN AURREKONTUA</b>	<b>60.597,00 €</b>
<b>ERAIKINETAKO KOMUNIKAZIO + SEINALETIKAREN AURREKONTUA</b>	<b>28.800,75 €</b>
<b>GARRAIORAKO KOMUNIKAZIOAREN AURREKONTUA</b>	<b>3.948,00 €</b>
<b>KOMUNIKAZIO/SEINALEKIAren AURREKONTU GUZTIRA</b>	<b>93.345,75 €</b>

Gogoratu behar da, hemen azaltzen diren kopuru guztiak jada jaso direla euren eremu zehatzeko Gauzatze Materialaren Aurrekontuetan.





## 3.- UDAL WEB-ORRIAREN ANALISIA

### 3.1.- SARRERA. ARAU-ESPARRUA.

PIAU honetan, irisgarritasunari dagokionez berriki egindako eskakizunei jarraituz, ORMAIZTEGIko udal-webgunearen irisgarritasun-maila aztertzen da.

Araudiari dagokionez, produktu eta zerbitzuen irisgarritasun-eskakizunei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko apirilaren 17ko 2019/882 (EB) Zuzentarauaren transposizioaren xedea da honako produktu eta zerbitzu hauen irisgarritasun unibertsalaren baldintzak ezartzea. Zuzentaru hori oinarritzat hartuta, honako zerbitzu hauek identifikatu dira, eta horien artean dago web-orria:

- Zerbitzuak
- Erakundearen eta herritarren arteko komunikazio elektronikoak
  - Aurrez aurreko, urruneko edo online arretarako guneak
  - Merkataritza elektronikoa
  - Web-guneak**
  - Informazio-sistemak
  - Sare sozialak
  - Arreta pertsonalizatua
  - Laguntza teknikoak (gurpil-aulkiak, audio-gidak...)

Bestalde, honako arau hauek hartu behar dira kontuan:

- 1494/2007 Errege Dekretua, azaroaren 12koa, desgaitasuna duten pertsonen informazioaren gizartearekin eta gizarte-komunikabideekin lotutako teknologiak, produktuak eta zerbitzuak eskuratzeko oinarritzko baldintzei buruzko erregelamendua onartzen duena.
- 1112/2018 Errege Dekretua, irailaren 7koa, Sektore publikoko webguneen eta gailu mugikorretarako aplikazioen erabilerraztasunari buruzkoa.
- UNE-EN 301549:2022 araua, 2022/01/05eko IKT produktuen eta zerbitzuen irisgarritasun-baldintzak, Europako kontratazio publikoari aplikatzekoak, EN 301549:2021 V3.2.1 (2021-03) Accessibility requirements for ICT products and services Europako Arauaren bertsio ofiziala da, gaztelaniaz.

## 3.2.- WEB IRISGARRITASUNA

Web irisgarritasunak esan nahi du webguneak, tresnak eta teknologiak diseinatuta eta garatuta daudela, dibertsitate funtzionala duten pertsonak erabil ditzaten. Zehazki esanda, pertsonak honako hauek egin ditzakete:

- Web-a hautematea, ulertzea, nabigatzea eta harekin elkarreragitea.
- Webari ekarpenak egitea.

Web irisgarritasunak web sarbideari eragiten dioten dibertsitate funtzional guztiak biltzen ditu, honako hauek barne:

- entzumenekoak
- kognitiboak
- neurologikoak
- fisikoak
- mintzamenekoak
- bisualak

Web irisgarritasuna ere onuragarria da dibertsitate funtzionalik ez duten pertsonentzat, hala nola:

- telefono mugikorrek, erloju adimendunak, telebista adimendunak eta pantaila txikiak dituzten beste gailu batzuk erabiltzen dituzten pertsonak, sartzeko modu desberdinak, etab.
- adinekoak, adinarekin trebetasunak aldatzen zaizkienak.
- "aldi baterako ezintasunak" dituzten pertsonak, hala nola beso hautsi bat edo betaurreko batzuk galtzea.
- "kokapenaren araberako mugak" dituzten pertsonak, hala nola eguzkiaren argipean edo audiorik entzun ezin den ingurune batean.
- Interneterako konexio motela duten pertsonak edo banda-zabalera mugatua edo garestia dutenak.

### **- WEBGUNEA IRISGARRI BAT LORTZEA**

Web irisgarritasuna elkarrekin lan egiten duten osagai askoren menpe dago, web teknologiak, nabigatzaileak eta beste "erabiltzaile-agente" batzuk, egile-tresnak eta webguneak barne.

W3Cren Web Irisgarritasunaren Ekimenak (WAI, ingelesez) espezifikazio teknikoak, jarraibideak, teknikoak eta irisgarritasun-soluzioak deskribatzen dituzten baliabideak garatzen ditu. Horiek nazioarteko estandartzat hartzen dira web irisgarritasunerako; adibidez, WCAG, ingelesez Web Content Accessibility Guidelines dena, itzulita: Webgunearen Edukirako Irisgarritasun Jarraibideak.



Web-orri edo -aplikazio batean aurki daitekeen informazioari erreferentzia egiten zaio, oro har, web-eduki bidez, eta horren barruan sartzen dira:

- informazio naturala, hala nola testuak, irudiak eta soinuak.
- egitura, aurkezpena eta abar definitzen dituen kodea edo marka.

WCAG jarraibideak eduki dinamikoari, multimediarri, "mugikorrari" eta abarri aplikatzen zaizkie. Webgunearekin lotuta ez dauden informazio- eta komunikazio-teknologiei (IKT) ere aplika dakizkieke, WCAG2ICTen azaltzen den bezala.

## 3.3. UDAL WEB-ORRIA

### 3.3.1. ANALISIA

PUNTODIS enpresak aztertu du ORMAIZTEGIren web-ataria, erabilerraztasun-irtenbideetan adituak baitira.

UNE-EN 301549:2022 eta WCAG sistemetan ezarritako jarraibideen arabera egin da analisia.

Analisiaren arabera, web-orria 162 azpi-orritz osatuta dago, eta horietako bakoitza URL helbide bati dagokio. Guztiak desberdinak direla eta errepikatzen diren txantiloi oso gutxi daudela adierazi dute.

Analisian webguneko elementu errepikakorrak hartu dira kontuan, hala nola goiburuak eta oinak.

I. ERANSKINEAN dauden dokumentuek PUNTODISek udalaren web-orriaren azterketari buruz egindako txosten guztiak jasotzen dituzte.

### 3.3.2. AZTERKETAREN ONDORIOAK

Egindako azterketaren ondorioak adierazten du udalaren web-ataria ez datorrela bat erabilitako bi azterketa-jarraibideekin, hau da, ez dela bat UNE-EN 301549:2022 arauarekin, ezta WCAG arauarekin ere.

Jarraian, web-atariaren edukiaren ezaugarriak zerrendatzen dira, irisgarria ez izateko, 1112/2018 Errege Dekretuarekin bat ez etortzeagatik:

- Testukoak ez diren eduki batzuek ez dute ordezeko testurik, edo egokia ez den aukera bat dute [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.1.1.1 zenbakiko baldintza].
- Akatsak daude edukiaren erlazioak islatzen dituen etiketa semantiko bat erabiltzean [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.1.3.1 zenbakiko baldintza].



- Sekuentzia esanguratsurekin lotutako akatsak daude [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.1.3.2 zenbakidun baldintza].
- Prozesu sekuentzialen koherentziarekin lotutako akatsak daude [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.1.3.3 zenbakidun baldintza].
- Datuak sartzeko asmoa identifikatzearekin lotutako akatsak daude [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.1.3.5 zenbakidun baldintza].
- Informazioa kolorearen bidez bakarrik transmititzearekin lotutako akatsak daude [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.1.4.1 zenbakiko baldintza].
- Kasu bakoitzerako eskatzen den gutxieneko kontrastearekin lotutako akatsak daude [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.1.4.3 zenbakidun baldintza].
- Informazioa testualak ez diren kolore-kontrasteekin bakarrik transmititzearekin lotutako akatsak daude [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.1.4.11 zenbakidun baldintza].
- Elementuren baten hobiari eta fokuari harrerari lotutako akatsak daude [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.1.4.13 zenbakiko baldintza].
- Orrialde batzuetan teklatu bidezko nabigazioa ez da onena eta akatsak agertzen dira [UNE-EN 301549:2022 baldintza].
- Denboran oinarritutako bitartekoetan denborak aldatzearekin edo doitzearekin lotutako akatsak daude [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.2.2.1 zenbakiko baldintza].
- Automatikoki hasten diren mugimendua, kliska edo desplazamendua duten edukiekin lotutako erroreak daude, ez dago mekanismo bat erabiltzaileak faltsutzeko, gelditzeko edo ezkutatzeko [UNE-EN 301549:2019 arauaren 9.2.2.2 zenbakiko baldintza].
- Fokua jasotzen ez duten elementuekin lotutako erroreak daude, eta, beraz, ezin da haiekin interakzioan jardun teklatuaren bidez [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.2.4.3 zenbakiko baldintza].
- Baliteke atariko esteken helburua erabiltzaile guztientzat nahikoa deskribatzailea edo sendoa ez izatea [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.2.4.4 zenbakidun baldintza].
- Goiburuetan testu errepikatua edota deskripzio gutxikoa dago, etiketa okerrak [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.2.4.6 zenbakidun baldintza].
- Fokuari ikusgarritasunarekin lotutako akatsak daude [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.2.4.7 zenbakidun baldintza].
- Kurtsorearen keinuekin lotutako akatsak daude [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.2.5.1 zenbakidun baldintza].
- Kurtsorea ezeztatzearekin lotutako akatsak daude [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.2.5.2 zenbakidun baldintza].
- Oker etiketatutako elementu ez-testual batzuekin lotutako akatsak daude [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.2.5.3 zenbakidun baldintza].



- Irudiekin, infografiekin, esteken edo botoien testuekin, titularren testuarekin eta edukiarekin lotutako akatsak daude, beste hizkuntza batzuetara itzulita ez daudenak [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.3.1.1 zenbakidun baldintza].
- Orrialdearen hizkuntzarekin eta edukiarekin lotutako akatsak daude [UNE-EN 301549:2022 baldintza].
- Elementu baten fokua hartzearekin eta testuinguruarekin lotutako akatsak daude [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.3.2.1 zenbakidun baldintza].
- Datuen sarrerarekin eta testuinguruaren aldaketarekin lotutako akatsak daude [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.3.2.2 zenbakidun baldintza].
- Deskribapen gutxiko errore-mezuak daude, edo mezu bakar batean multzokatuta ez dauden errore-mezuak, bai eta formularioan iradokizunik ez egotea eremuak behar bezala betetzeko [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.3.3.1 zenbakidun baldintza].
- Inprimaki batzuetan ez da etiketarik edo jarraibiderik ematen modu egokian [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.3.3.2 zenbakidun baldintza].
- Formularioen eremu batzuetan errorearen berri ematen da balio oker bat sartzen denean, baina ez da hori zuzentzeko iradokizunik egiten [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.3.3.3 zenbakidun betekizuna].
- Erroreak prebenitzearekin lotutako erroreak daude (legezkoak, finantzarioak, datuenak) [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.3.3.4 zenbakidun betekizuna].
- Edukiari buruzko informazioan akatsak daude [UNE-EN 301549:2022 zenbakiko baldintza].
- Erroreak daude egoera-mezuetan, edo ez daude edo nahasiak dira. [UNE-EN 301549:2022 arauaren 9.4.1.3 zenbakidun baldintza].

### 3.4. AURREKONTUA

Kontuan hartuta 162 azpi-orrialdez osatutako web-ataria dela ORMAIZTEGIko udalekoa, bakoitzak URL helbide desberdina duela, eta txantilo oso gutxi daudela errepikatuta, aholkularitza xehatua egin beharko da web-orria erabat irisgarria izateko beharrezkoak diren aldaketak proposatu ahal izateko.

Web Erabilerraztasuneko adituek egindako ikuskapenaren emaitzak aztertuko lituzkete, eta beharrezko aldaketak proposatuko lituzkete eskatutako adostasun-maila lortzeko.

Auditoretzaren emaitza txosten tekniko bat da, non aldaketa horiek urratsez urrats zehazten diren. Horiek eginez gero, espero den irisgarritasun-mailaren helburua lortuko dela ziurtatuko da.

Arauari egokitzeko lanak hiru irisgarritasun-graduren arabera egin daitezke, eta horiek metagarriak dira. Horri esker, web orria faseka egokitu daiteke.

#### 01.- OINARRIZKO WEBGUNE IRISGARRIA:

Proposamen hau Test Automatikoak gainditzeko beharrezkoak diren aldaketetan datza (adibidez: Wave tools, Axe...), eta puntuazio lortuko luke, nahikoa OAW (Web Irisgarritasunaren Behatokia) UNE 301549:2022 metodologia jarraitzen duen txosten batean.

#### 02.- WEBGUNEAREN IRISGARRITASUN ERTAINA

Aukera horrek lehen proposamenean jasotakoa ekarriko luke, eta egungo WCAGen AA maila gainditzea gehituko litzateke.

#### 03.- WEBGUNEAREN IRISGARRITASUN OSOA.

Aukera horrek aurreko proposamenetan adierazitakoa ekarriko luke, eta beharrezko aldaketak gehituko lirateke WAI-ARIA proiektua sartzeko eta funtzionalitate batzuetarako erabilitako JavaScript eskuragarriago egiteko. Atari honetan funtzionaltasun hedatuak egiten dituzten elementu asko daude, ARIA eransteak Rolak, Etiketak, Egoerak, Propietateak... definitzea dakar, atari hau erabat irisgarria izan dadin.

Fase horietako bakoitzari dagozkion aurrekontuak honako hauek dira:

1. FASEA:	Oinarrizko irisgarritasuna		<b>16.686,00 €</b>
2. FASEA:	Irisgarritasun ertaina	Oinarrizkoa + 5.670 €	<b>22.356,00 €</b>
3. FASEA:	Irisgarritasun osoa	Ertaina + 4.050 €	<b>26.406,00 €</b>
<b>WEB-ORRIAREN AURREKONTU OSOA</b>			<b>26.406,00 €</b>

### 3.5. LEHENTASUNAK

Webgune irisgarri oso bat lortzeko egin beharreko gehieneko inbertsioa 3. fasea izango litzateke, 26.406,00 euroko inbertsioarekin. Faseak pixkanaka gauzatu daitezke, oinarrizkotik hasita, ertainetik pasatuz eta webgune irisgarri osora iritsiz.

Beti egin daitezke udalaren web orriaren irisgarritasun-maila hobetzen duten ekintza gehigarriak.





Lehentasunak ezartzerakoan, esku-hartze horiek PIAU honen lehentasunetan ez sartzea erabaki da. Erabaki hori hartzeko argudio nagusia udal langileei egindako inkestetan jasotako erantzunak izan dira, 7. liburukian agertzen direnak. Horietan jasotzen denez, ez da udalaren webguneari buruzko iruzkin negatiborik edo kexarik jaso.

Horregatik guztiagatik, **esku-hartze horiek ondorengo faseetan sartuko dira.**

---

### UDAL WEB-ORRI - PRESUPUESTO DEL PIAU

---

#### Aurrekontua (irisgarritasun osoa)

WEB-ORRIA EGOKITZEA 26.406,00 €

<b>Aurrekontu osoa</b>	<b>26.406,00 €</b>
------------------------	--------------------

Zerga oinarria 26.406,00 €

#### Zergak

Balio eratsiaren zerga (B.E.Z) %21 5.545,26 €

<b>Udak Web-Orria egokitzeko aurrekontu osoa</b>	<b>31.951,26 €</b>
--	--------------------





## **I ERANSKINA: WEB ORRIAREN ANALISIAREN TXOSTENAK.**

Lehen esan bezala, PUNTODIS enpresak udalaren web orria aztertu du. Azterketa horren emaitzak honako txosten hauetan jasota daude:

1.- UNE-EN 301549:2022 araudian ezarritako jarraibideen araberako txostena.

[https://drive.google.com/drive/folders/1K-yuxBPJGvX94Zf22qZckkhdV0RBadBW?usp=drive link](https://drive.google.com/drive/folders/1K-yuxBPJGvX94Zf22qZckkhdV0RBadBW?usp=drive_link)

2.- WCAGen ezarritako jarraibideen araberako txostena

[https://drive.google.com/drive/folders/1hTQMiy3nrV\\_VrEkNQnPpE6plqpYkee07?usp=drive link](https://drive.google.com/drive/folders/1hTQMiy3nrV_VrEkNQnPpE6plqpYkee07?usp=drive_link)

